



Usurbilgo Udala



**TOKIKO GOBERNU BATZARRAK 2014KO APIRILAREN 8AN
GOIZEKO 8:35EAN EGINDAKO OHIKO BILKURAKO AKTA**

BERTARATUAK:

Alkatea: Mertxe Aizpurua Arzallus.

Zinegotziak: Alaitz Aizpurua Labaka eta Jone Urdanpilleta Urdanpilleta.

Idazkaria: Nagore Sarasola Otermin.

Ezinetorria adierazi dute: Jose Maria Rivadeneyra Siciliak eta Josu Portu Alzagak.

1.- AURREKO BILKURAKO AKTAREN ONESPENA: 2014/03/25EKO OHIKO BILKURA.

Batzarkideek, 2014ko martxoaren 25eko ohiko bilkurako akta aho batez onartu dute.

2.- CLARIE'S ACCESSORIES SPAIN, S.L. ENPRESAK URBIL MERKATAL ZENTROKO B-39 ETA B-40 LOKALETAN EZARRI DUEN BITXI DENDA IREKITZEKO BAIMENA EMATEA.

Esp. Zenbakia: HZ.07/2013-0070

CLARIE'S ACCESSORIES SPAIN, S.L. enpresak, Urbil Merkatal Zentroko B-39 eta B-40 lokaletan ezarri duen bitxi dendaren irekiera baimena eskatzen du.

ESPEDIENTE ZKIA: HZ.07/2013-0070

ESKATZAILEA: CLARIE'S ACCESSORIES SPAIN, S.L.

JARDUERA MOTA: Bitxi denda

NON KOKATUA: Urbil Merkatal Zentroko B-39 / B-40 lokala – Usurbil

AURREKARIAK

2013ko otsailaren 4an, 445 sarrera zenbakiarekin, *Lokaletan obrak edota jarduera sailkatuaren lizentzia egiteko eskabidea* aurkeztu zuen udalean, Jesus E. Armario Torres ingeniari teknikoak sinatzen du idatzitako proiektuarekin batera.

Tokiko Gobernu Batzarrak, 2013ko maiatzaren 14an, Urbil Merkatal Zentroko B-39 eta B-40 lokaletan bitxi denda ezartzeko obretako udal baimena eman zion CLARIE'S ACCESSORIES SPAIN, S.L. enpresari.

IREKIERA BAIMENA

Orain berriz, CLARIE'S ACCESSORIES SPAIN, S.L. enpresak ezarritako jardueraren irekiera baimena eskatu du.



Usurbilgo Udala



Eskaera aztertu eta dagokion ikuskapen bisitaldia egin ostean, udal aparejadoreak, Felix Aizpurua Arzallusek, ondoko txostena eman du:

ESKAERA: DENDA EZARTZEKO BAIMENA
JARDUERA: BITXI DENDA
ESKATZAILEA: CLARIE'S ACCESSORIES SPAIN, S.L.
KOKALEKUA: URBIL MERKATALGUNEAN B 39 – B 40 (TXIKI ERDI 7)
LURZORU SAILKAPENA: HIRI LURZORUA
ESP. ZENB.: HZ.07/2013-0070

AURREKARIAK

2013ko maiatzaren 14an, Tokiko Gobernu Batzarrak obretarako baimena eman zion CLARIE'S ACCESSORIES SPAIN, S.L. Baimenean zerrendatzen ziren bete beharrekoak eta obra amaitutakoan aurkeztu beharrekoak.

TXOSTENA

Obrak amaitu dituzenez, jarduera irekitzeko udal baimena eskatu du Bearrice Lafontek, Clarie's Accessories Spain S.L. enpresaren izenean.

Eskaerarekin batera, obrako amaiera ziurtagiria eta gainontzeko dokumentazioa aurkezten du.

Lokala aurkeztutako proiektuari eta eskatutakoari egokitzen den egiaztatzeko, bertaratu eta ikuskapena egin da.

Udalak eskatutako neurri zuzentzaileak eta baldintzak osatu dituzenez, aldeko txostena ematen da jarduerari.

2014ko martxoaren 31an
Udal aparejadorea
Felix Aizpurua

Eskaria kontutan hartuz eta udal aparejadorearen txostena irakurri ondoren, Tokiko Gobernu Batzarrak honako erabakia hartu du aho batez:

E R A B A K I A

LEHENDABIZI: CLARIE'S ACCESSORIES SPAIN, S.L. enpresak, Urbil Merkatal Zentroko B-39 eta B-40 lokaletan ezarri duen bitxi denda irekitzeko baimena ematea.

BIGARRENA: Erabaki honen berri interesatuari eta Kontuhartzaitzari ematea.

3.- UDALA ETA GURE ELKARTEAREN ARTEKO HITZARMENA ONARTZEA.

Aurrekariak



Usurbilgo Udala



LEHENA: Usurbilgo Udalak 2005eko ekainaren 17an egindako Udalbatzan Dirulaguntzak Arautzeko Ordenantza onartu zuen, 2008ko martxoaren 25ean bere aldaketa onartu zelarik. Azken hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen, 2008ko uztailaren 1ean, behin betiko izaerarekin.

BIGARRENA: Ordenantza honen III. Kapituluko 2. atalean Hitzartutako diru-laguntzen prozedura zehazten da Usurbilgo Udalak diru-laguntzak emateko duen bideetako bat bezala. Arautegi honen barruan, besteak beste, irabazi asmorik gabeko talde batzuei laguntza hitzartuak emateko asmoa dago, beraiekin hitzarmena sinatu ostean.

Horietako bat, “**GURE ELKARTEA**” deituriko Elkarte da.

HIRUGARRENA: GURE ELKARTEA irabazi asmorik gabeko elkarte da, bere nortasun propioa duen erakundea, 1986ko azaroaren 25ean eratu. Estatutuen arabera, bere helburuak dira: Santu-enea auzoan bizi diren jubilatuei eta pentsionistak guztiei harrera egitea eta beren arteko elkarbizitza sustatzea. Helburu horiei begira aisialdi eta kultur ekintzak antolatzen ditu besteak beste.

LAUGARRENA: Usurbilgo Udalaren iritziz, aurreko atalean adierazitako helburuak, herri-interesekoak dira eta beharrezko ikusten du talde horiek dinamizatzen eta bultzatzen parte hartzea, beti ere, haien proposamenak araututako baldintzapean sartzen badira.

BOSGARRENA: Bestaldetik, Toki-Entitateen Ondasunen Erregelamendua arautzen duen ekainaren 13ko 1372/1986 Errege-Dekretuko 109.2 artikuluan xedatutakoaren arabera, Udalek zeditu ahal izango dituzte beren ondare-izaerako ondasunak baldintza hauek kontuan harturik, beti ere:

- Lagapenaren esleipendunak irabazi asmorik gabeko eta herri-intereseko erakundea izan behar du.
- Lagapenak udalerriko biztanleen onura izan behar du helburu.

SEIGARRENA: GURE ELKARTEA-k egun duen lanari zor zaion errekonozimendua aintzakotzat hartuta eta Usurbilgo Udalbatzak Plenoan onaturiko udaleko diru-laguntzen erregimena kontuan harturik, 2010eko apirilaren 1ean Usurbilgo Udalak hitzarmena sinatu zuen Gure Elkartearekin lau urteko iraupenarekin.

ZAZPIGARRENA: Orain epe hori amaiturik, hitzarmen berria sinatzeko beharra ikusi da.

Kontuan harturik

- Azaroaren 17ko 38/2003 Legea, Herri Administrazioetako dirulaguntzak arautzen dituen.
- Usurbilgo Udalaren diru-laguntzen Ordenantza. (GAO 2008-07-01)
- Udal idazkariaren txostena

Hau guztia horrela, Tokiko Gobernu Batzarrak honako erabakia hartu du aho batez:

E R A B A K I A



Usurbilgo Udala



Lehenengoa: Usurbilgo Udalak eta Gure Elkarreak izenpetuko duten hitzarmena onartzea, agiri honi eranstean zaiolarik.

Bigarrena: Alkatea ahalmentzea aipatu hitzarmena sinatzeko.

Hirugarrena: Hitzarmenaren iraupena lau urtekoa izango da.

Laugarrena: Hitzarmen honen indarraldia, hitzarmena sinatu eta hurrengo egunean hasiko da.

Bosgarrena: Usurbilgo Udalak urtero, aurrekontu partidan hitzarmen honi aurre egiteko adinako dirua jartzeko konpromisoa hartzen du.

Seigarrena: Hitzarmenaren berri interesatuari, udal-ondare arduradunari eta kontu-hartzaileari emango zaio.

4.- UDALA ETA GURE PAKEA ELKARTEAREN ARTEKO HITZARMENA ONARTZEA.

Aurrekariak

LEHENA: Usurbilgo Udalak 2005eko ekainaren 17an egindako Udalbatzan Dirulaguntzak Arautzeko Ordenantza onartu zuen, 2008ko martxoaren 25ean bere aldaketa onartu zelarik. Azken hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen, 2008ko uztailaren 1ean, behin betiko izaerarekin.

BIGARRENA: Ordenantza honen III. Kapituluko 2. atalean Hitzartutako diru-laguntzen prozedura zehazten da Usurbilgo Udalak diru-laguntzak emateko duen bideetako bat bezala. Arautegi honen barruan, besteak beste, irabazi asmorik gabeko talde batzuei laguntza hitzartuak emateko asmoa dago, beraiekin hitzarmena sinatu ostean.

Horietako bat, “**GURE PAKEA**” deituriko Elkarrea da.

HIRUGARRENA: GURE PAKEA irabazi asmorik gabeko elkarrea da, bere nortasun propioa duen erakundea, 1984ko otsailaren 24ean eratua. Estatutuen arabera, bere helburuak dira: erdigunean bizi diren jubilatutako eta pentsionista guztiei harrera egitea eta beren arteko elkarbizitza sustatzea. Helburu horiei begira aisialdi eta kultur ekintzak antolatzen ditu besteak beste.

LAUGARRENA: Usurbilgo Udalaren iritziz, aurreko atalean adierazitako helburuak, herri-interesekoak dira eta beharrezko ikusten du talde horiek dinamizatzen eta bultzatzen parte hartzea, beti ere, haien proposamenak araututako baldintzapean sartzen badira.

BOSGARRENA: Bestaldetik, Toki-Entitateen Ondasunen Erregelamendua arautzen duen ekainaren 13ko 1372/1986 Errege-Dekretuko 109.2 artikuluan xedatutakoaren arabera, Udalek zeditu ahal izango dituzte beren ondare-izaerako ondasunak baldintza hauek kontuan harturik, beti ere:



Usurbilgo Udala

- Lagapenaren esleipendunak irabazi asmorik gabeko eta herri-intereseko erakundea izan behar du.
- Lagapenak udalerriko biztanleen onura izan behar du helburu.

SEIGARRENA: GURE PAKEA Elkarreak egun duen lanari zor zaion errekonozimendua aintzakotzat hartuta eta Usurbilgo Udalbatzak Plenoan onarturiko udaleko diru-laguntzen erregimena kontuan harturik, 2010eko apirilaren 1ean Usurbilgo Udalak hitzarmena sinatu zuen Gure Pakea Elkarreakin lau urteko iraupenarekin.

ZAZPIGARRENA: Orain epe hori amaiturik, hitzarmen berria sinatzeko beharra ikusi da.

Kontuan harturik

- Azaroaren 17ko 38/2003 Legea, Herri Administrazioetako dirulaguntzak arautzen dituen.
- Usurbilgo Udalaren diru-laguntzen Ordenantza. (GAO 2008-07-01)
- Udal idazkariaren txostena

Hau guztia horrela, Tokiko Gobernu Batzarrak honako erabakia hartu du aho batez:

ERABAKIA

Lehenengoa: Usurbilgo Udalak eta Gure Pakea Elkarreak izenpetuko duten hitzarmena onartzea, agiri honi eransten zaiolarik.

Bigarrena: Alkatea ahalmentzea aipatu hitzarmena sinatzeko.

Hirugarrena: Hitzarmenaren iraupena lau urtekoa izango da.

Laugarrena: Hitzarmen honen indarraldia, hitzarmena sinatu eta hurrengo egunean hasiko da.

Bosgarrena: Usurbilgo Udalak urtero, aurrekontu partidan hitzarmen honi aurre egiteko adinako dirua jartzeko konpromisoa hartzen du.

Seigarrena: Hitzarmenaren berri interesatuari, udal-ondare arduradunari eta kontu-hartzaileari emango zaio.

5.- UDALA ETA ARRATE ELKARTEAREN ARTEKO HITZARMENA ONARTZEA.

Aurrekariak

LEHENA: Usurbilgo Udalak 2005eko ekainaren 17an egindako Udalbatzan Dirulaguntzak Arautzeko Ordenantza onartu zuen, 2008ko martxoaren 25ean bere aldaketa onartu zelarik. Azken hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen, 2008ko uztailaren 1ean, behin betiko izaerarekin.



Usurbilgo Udala

BIGARRENA: Ordenantza honen III. Kapituluko 2. atalean Hitzartutako diru-laguntzen prozedura zehazten da Usurbilgo Udalak diru-laguntzak emateko duen bideetako bat bezala. Arautegi honen barruan, besteak beste, irabazi asmorik gabeko talde batzuei laguntza hitzartuak emateko asmoa dago, beraiekin hitzarmena sinatu ostean.

Horietako bat, “**ARRATE**” deituriko Elkartea da.

HIRUGARRENA: ARRATE irabazi asmorik gabeko elkartea da, bere nortasun propioa duen erakundea, 1986ko abuztuaren 13an eratua. Estatutuen arabera, bere helburuak dira: Aginaga auzoan bizi diren jubilatu eta pentsionista guztiei harrera egitea eta beren arteko elkarbizitza sustatzea. Helburu horiei begira aisialdi eta kultur ekintzak antolatzen ditu besteak beste.

LAUGARRENA: Usurbilgo Udalaren iritziz, aurreko atalean adierazitako helburuak, herri-interesekoak dira eta beharrezko ikusten du talde horiek dinamizatzen eta bultzatzen parte hartzea, beti ere, haien proposamenak araututako baldintzapean sartzen badira.

BOSGARRENA: Bestaldetik, Toki-Entitateen Ondasunen Erregelamendua arautzen duen ekainaren 13ko 1372/1986 Errege-Dekretuko 109.2 artikuluan xedatutakoaren arabera, Udalek zeditu ahal izango dituzte beren ondare-izaerako ondasunak baldintza hauek kontuan harturik, beti ere:

- Lagapenaren esleipendunak irabazi asmorik gabeko eta herri-intereseko erakundea izan behar du.
- Lagapenak udalerriko biztanleen onura izan behar du helburu.

SEIGARRENA: ARRATE Elkarteak egun duen lanari zor zaion errekonozimendua aintzakotzat hartuta eta Usurbilgo Udalbatzak Plenoan onarturiko udaleko diru-laguntzen erregimena kontuan harturik, 2010eko apirilaren 1ean Usurbilgo Udalak hitzarmena sinatu zuen Arrate Elkartearekin lau urteko iraupenarekin.

ZAZPIGARRENA: Orain epe hori amaiturik, hitzarmen berria sinatzeko beharra ikusi da.

Kontuan harturik

- Azaroaren 17ko 38/2003 Legea, Herri Administrazioetako dirulaguntzak arautzen dituen.
- Usurbilgo Udalaren diru-laguntzen Ordenantza. (GAO 2008-07-01)
- Udal idazkariaren txostena

Hau horrela, Tokiko Gobernu Batzarrak honako erabakia hartu du aho batez:

E R A B A K I A

Lehenengoa: Usurbilgo Udalak eta Arrate Elkarteak izenpetuko duten hitzarmena onartzea, agiri honi eransten zaiolarik.



Usurbilgo Udala



Bigarrena: Alkatea ahalmentzea aipatu hitzarmena sinatzeko.

Hirugarrena: Hitzarmenaren iraupena lau urtekoa izango da.

Laugarrena: Hitzarmen honen indarraldia, hitzarmena sinatu eta hurrengo egunean hasiko da.

Bosgarrena: Usurbilgo Udalak urtero, aurrekontu partidan hitzarmen honi aurre egiteko adinako dirua jartzeko konpromisoa hartzen du.

Seigarrena: Hitzarmenaren berri interesatuari, udal-ondare arduradunari eta kontu-hartzaileari emango zaio.

6.- UDALA ETA ZUMARTE MUSIKA ESKOLAREN ARTEKO HITZARMENA ONARTZEA.

Esp.zk.: HE.04/2014-0015

Aurrekariak

Usurbilgo Udalak 2005eko ekainaren 17an egindako Udalbatzan Dirulaguntzak Arautzeko Ordenantza onartu zuen, 2008ko martxoaren 25ean bere aldaketa onartu zelarik. Azken hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen, 2008ko uztailaren 1ean, behin betiko izaerarekin.

Ordenantza honen III. Kapituluko 2. atalean Hitzartutako diru-laguntzen prozedura zehazten da Usurbilgo Udalak diru-laguntzak emateko duen bideetako bat bezala. Arautegi honen barruan, besteak beste, irabazi asmorik gabeko talde batzuei laguntza hitzartuak emateko asmoa dago, beraiekin hitzarmena sinatu ostean.

Horietako bat, “**ZUMARTE MUSIKA ESKOLA**” deituriko Elkarte da.

Zumarte Musika Eskolak, urteetan herrian musika irakaskuntzan lan handia egin du, eta beharrezkoa ikusten da Udala eta Zumarte Musika Eskolaren arteko harremana hitzarmen batean jasotzea.

Modu honetara, 2010eko martxoaren 23an Usurbilgo Udalak hitzarmena sinatu zuen Zumarte Musika Elkartearekin lau urteko iraupenarekin.

Orain epe hori amaiturik, hitzarmen berria sinatzeko beharra ikusi da.

Hitzarmen honen helburua bikoitza da:

- Usurbilgo Udalaren aldetik: Zumarte Musika Eskolarekin dirulaguntza-erregimena eta prekarioz lagatuko dion lokalaren erabilpena arautzea.



Usurbilgo Udala



- Zumarte Musika Eskolaren aldetik: Usurbilgo udalerrian eta, bereziki, Usurbilgo biztanleriaren artean, musika irakaskuntza sustatzea.

Kontuan harturik

- Azaroaren 17ko 38/2003 Legea, Herri Administrazioetako dirulaguntzak arautzen dituena.
- Usurbilgo Udalaren dirulaguntzen Ordenantza. (GAO 2008-07-01)
- Udal idazkariaren txostena

Ondorioz, Tokiko Gobernu Batzarrak honako erabakia hartu du aho batez:

E R A B A K I A

Lehenengoa: Usurbilgo Udalak eta Zumarte Musika Eskolak izenpetuko duten hitzarmena onartzea, agiri honi eransten zaiolarik.

Bigarrena: Alkatea ahalmentzea aipatu hitzarmena sinatzeko.

Hirugarrena: Hitzarmenaren iraupena lau urtekoa izango da.

Laugarrena: Hitzarmen honen indarraldia, hitzarmena sinatu eta hurrengo egunean hasiko da.

Bosgarrena: Usurbilgo Udalak urtero, aurrekontu partidan hitzarmen honi aurre egiteko adinako dirua jartzeko konpromisoa hartzen du.

Seigarrena: Hitzarmenaren berri interesaturari, udal-ondare arduradunari eta kontuhartzaileari emango zaio.

Eta eztabaidarako gaiak amaiturik, Alkate andreak batzaraldia bukatutzat eman du, goizeko 08:40ean bilera agiri hau jaso da, batzordekideek izenpetuz eta nik, idazkariak, ziurtatuz.